

auzo z auzo • auzoz auzo • auzoz auzo •

herrera-bidebieta

Bidebietako gazte-txokoa berriz martxan

Pasa den ekainaren 23-an berriro ireki zen Bidebietan gazte txokoa.

Gazte txokoa, egitura administratiboak zirela eta, 1993ko azaroan ireki ondoren, itxita geratu zen hilabete batzutan; baina gazteen eskakizunek eta Bidebietako gizarte beharrek berriz ere irekitzea bultzatu dute.

Gazte txoko hau, Bidebietako drogamenpekotasunaren prebentziorako batzordeari Donostiako Udaleko Ongizate Sailak eginiko eskakizunetik sortu zen.

Helburu nagusia bi zatitan banatzen da: alde batetik, osasunaren hezkuntza irakatsi nahi zaie

gazteei eta bestetik, aisia modu produktibo eta libre batez pasatzeko aukera eskaintzen zaie.

14-16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete. Proiektu honek, Bidebieta auzoan martxan jarri diren beste bi gizarte proiektuen arteko zubi funtzioa betetzen du: Haur Txokoa eta «Contadores»en biltzen den taldearen artekoa alegia.

Haur Txokoan 14 urte arteko haurrek hartzen dute parte eta «Contadores»en berriz, 17 urtetik aurrerako gazteak biltzen dira. Gizarte proiektu guzti hauen helburua drogamenpekotasunaren prebentzioa litzateke eta horregatik



(Argazkia: Roxali Fernandez)

garrantzi handia eman zaio haur zein gazteen aisia modu egokian antolatzeari.

Nahiz eta Bidebieta auzoak droga arazo larriak dituen, talde hauek beste zenbait arazori erantzuna ematen ere saiatzen dira. Dena den, gazteek droga eta bere ingurua gertutik bizi dutela egia da.

Juan Carlos Guerra kalean lokal batzuk moldatu dituzte gazte txokoan parte hartzen duten gazteek berek. Lokalak Bidebietako ikastetxe publikoaren behaldean daude. Beraiekin harremanetan jartzeko 394890 telefono zenbakira deitzea nahikoa da.

Astelehenetik ostiralera 18.00etatik 20.30etara

irekita dagoen txoko hau gazte askorentzat bilera leku garrantzitsua da eta musika, komikiak, aldizkariak zein erlazio jokoak topa ditzakegu bertan. Materialeak erabiltzeko ez da dirurik ordaindu behar, egin beharreko formalismo bakarra, fitxa bat betetzea da.

Gazte txokoaren arduradunak Iñaki Casares eta Javier Jimenez dira. Bi donostiar gazte hauek Bidebietako egoera soziala nahiko ondo ezagutzen dute jadanik.

Irutxulo aldizkariak, zorte ona opa dio Gazte Txokoaren bigarren epe honi.

LARRAITZ GARMENDIA

(Tfnua.: 391267)



Konponketa, margotzea eta antolaketa guztien artean egin dute eta horren adibide gisa, sarreran landu duten mural izugarri hau daukate.

Z

Larratxo 16,
☎ 39 14 15 DONOSTIA

**CALZADOS
ZABALO**

Oinetakoak - Poltsak
eta osagaiak

TXUBILLO
GRAFIKAGINTZA


**OFFSET
INPRENTA**
Benta Berri Azpi
Kristobal Balenziaga, 58
☎ 21 68 55 Faxa 21 68 55
IGELDO Donostia

Udan ere ikasi eta ikasi

Kurtoaren bukaera ofiziala ekainean bada ere, nori ez zaio noizbait akademia edo klase partikularretara joatea egokitu? Gaur egungo ikasle askoren egoera horixe da eta urtean zehar egin ez dutena, bi hilabete-tan egiten saiatzen dira. Auzoan bertan makina bat gazte daude egoera horretan.

Corrotozko «kate» edo suspentsoak dituzten gehienek akademietara jotzen dute. Udan irakasle eta ordu gehiago eskaintzen dituzte, beste ekintza batzuekin batera: liburutegia, bideoteka, talde irteerak, metodo audibisualak, ... Ematen diren gaiak, ohizkoak dira: matematika, fisika, kimika, latina eta literatura. Guzti hauek euskaraz zein gazteleraz izan daitezkeelarik.

Matematika eta fisika dira gazteengan arazo gehien sortzen dituzten



Udaldian haur eta gazteak akademietan sartzeko eskaera izugarri handitzen da. Ikasturte osoan egin ez dena bi hilabete-tan agin nahi izaten da.

gaiak. Bestalde, euskara eta ingeles klaseetara ere jendea erruz hurbiltzen da.

Akademia auzoan bertan kokatzeak ez dakar inolako eragozpenik, kompetentzia aldetik bederen. Alderantzizkoa esan genezake: jendeak nahiago du auzoan bertan geratu, erdialdera autobusez joatea denbora galdu baita.

Prezioak udan garestiagoak dira.

Beste batzuek aldiz, irakasle partikularren aukera hautatzen dute.

Auzoko zenbait kirol elkartek alegazio bat aurkeztu dute Plan Orokorra-ren inguruan. Proposamena, Mairutxipiko errehabilitazio polikiroldegia eraikitzea da. Gaur egun, Intxaurrondok ez du behar adina kirol instalaziorik eskaintzen. Auzoa haziz doa,

Ikasketa unibertsitariak egiten ari diren gazte asko prest daude udako ordu batzutan klaseak emateko. Klase hauen batzbesteko prezioa ordubeteko 1.000 pezetakoa da.

Hala ere, ikasle gehienak gurasoek bultzatuta joaten dira irailerako utzitako utzitako asignaturak inongo laguntzarik gabe ateratzeko gai direla diote eta ez dute klaseetara joan nahi izaten. Gurasoak ez dira guztiz ados izaten beren seme-alabekin.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

baina ez da berdina gertatzen instalazioekin. Polikiroldegi honek, Intxaurrondoz gain, Ategorrieta, Gros eta Uliako beharrak asetu-ko lituzke. Elkarte hauek proposatzen duten polikiroldegia guztiz osoa da: bi igerileku, sauna, frontoia, gimnasioa, ...

MARPE

- Apalategia
- Ekipamendu komertziala

Kolon pasealekua 23, ☎ 27 63 96
DONOSTIA

Alaia
Taberna

Euskal Herria plaza
☎ 29 26 63 Gros

Ronda, 2 - Tfnoa: 277102

RONDASPORT

Donostiarra
Bodega
Ogitarteko bereziak

CRAZY

GAZTE MODA

Hondarria, 33 ☎ 473838